

KRISTAUTASUNAREN SARRERA EUSKAL HERRIAN (A. Azkarate-ren lanari kritika)

Sarrera

Euskal Herriaren historian dugun gai guztiz garrantzitsua, kristautasunaren sarrerari dagokiona da.

Azken bi mende hauetan nahiko eztabaidatua izan da sarre-
ra hori, baita euskal elizbarrutien sorrera ere. Eta Euskal Herria-
ren kristautzea noiz gertatu zen adierazterakoan, hainbeste erra-
kuntza eta uste oker zabaldurik, horiek historiariei, eta kasu
batzutan, historilari ospetsuen lumatik etor daitezkeela ez da
erraz sinestekoa.

Azken urteotan, Euskal Herriaren kristautzearen auzia era-
bakitze-bidean aurrerapena, ez handia baina bai benetakoa, eka-
rri diguten idazlan batzu argitaratu izan dira. Esate baterako, az-
ken idazlanen artean aipagarriak ditugu A. Mañaricua eta J.J.
Sayas Abengoechea-renak etab.

Oraintsu, 1987.ean, Euskal Herriko Unibertsitateak argita-
ratutako liburua agertu da: «Euskal Herriaren Historiaz III. Kul-
tura eta portaera erlijiosoak Euskal Herrian Historian zehar». Autore ezberdinek burututako artikuluz osotua dago eta hauen
artean, A. Azkarate Garai-Olaun'ena: *Kristautasunaren sarrera: Ez-
tabaida historiografikoa zertan den* (23-50. orr.).

Idazlan hau abiapuntutzat hartuz, zenbait ohar kritiko ezarri nahi ditut auzi honetaz.

I. A. Azkarate-ren artikulua dela eta

1. Onuragarri

A. azkarate-ren idazlana irakurtzean nire zentzaziotariko bat poza izan da: poza, kristautzearen gai garrantzitsu hau historiarientzat erakargarri dela somatzean; eta dokumentuetan urria eta denboran urrunekoa delako gai iluna gertatzen den honetan apurka-apurka argi eginez doala konturatzean. Beraz, onuragarritzat jotzen ditut honelako lanak.

Azkaratek honela adierazten digu idazterakoan izan duen asmoa: «Gure asmoa ez da, Euskal Herriaren kristaukuntzaren historiografia luze eta zabal sakontzea, baizik eta «aurrekritikotzat» definituriko egileen lehen erreferentziatik gaurko egoerara arteko laburpentxo bat egitea, ikerkuntzaren geroaz zenbait kontsiderazio ahaztu gabe».

Haren doktoretza-tesia noiz ikusiko irrikaz nago; berak dioenez, azken ikututxoan faltaz, baina jadanik burutua izan behar du eta kristautzearen auzi honenkin ba omen du zerikusirik darabilen gaiak. Horregatik, Euskal Herriaren kristautzeaz duen eritzia bere baitan gordetzen duela edo eta artikulua honetan ez duela ematen, adierazten digu. Hala ere zenbait joera edo ikusbide antzematen zaizkio autoreak aurkezteko eran batez ere..

Berak dioenez, historiografia labur hau «deskribakorra» da, sinplea eta ulerkorra.

2. Ezadostasunak eta kritikazko gehigarriak

a. Historiografi lan horretan, aipatzea ere merezi ez duten egile batzu ageri dira eta aipagarriak eta garrantzitsuagoak diren beste batzu, ostera, falta dira. Adibidez M. E. Solavera eta T. Garabito-k 1978.ean Errioxaren kristautzeari buruz egindako artikulua aipatu ere ez da egiten; baina batez ere Iparraldean kris-

tautzeaz eta bereziki hain eztabaidatua den Baionako elizbarrutiaren sorreraz hango historiarien eritziak falta dira.

b. Egiten diren egile eta eritziaren sailkapen ezberdinetan betiko leloa errepikatzen da eta betiko erara, autore eta eritziari historiografia serio eta kritikoa batetan merezi luketen baino garrantzi handiagoa ematen zaielarik.

c. Egileak eta eritziak sailkatzeko erari nahiko axalekoa deritzat:

-*Aurreratzaileak* eta *atzeratzaileak*: hau da, Euskal Herriaren kristautzea aurreratu nahi luketenak alde batetik (III. eta IV. mendeetara arte batzuk), eta atzeratu nahi luketenak bestetik (batzuk XII. mendera arte). Bereizketa hau argia eta ukerterraza bada ere, nik neuk ez nuke zientifikotzat joko. Benetako argudiorik gabeko eritziak aurreratzen nahiz atzeratzen dutenen kopuruak (kantitateak) ez du ezer esan nahi, ematen diren argudioak eta hauen balioak baizik.

-Beste sailkapen bat ere antzematen da artikuluan: alde batetakoak, gehien bat laikoak (*atzeratzaileak*); bestekoak, berriz, elizgizonak (*aurreratzaileak*).

Sailkapen hauen bidez, historiografi idria batzu argiago, ulerterrazago geratuko dira, baina ez dira zientifikoak eta errakuntzara eragin lezakete, eztabaida antzuei leku emanik. Esate baterako, atzeratzaileen aita Z. García Villada izan zen, espainiar historialari handia. Apaiz Josulagun honek eragin handia izan du, baina Euskal Herriaren kristautzeaz duen eritzia oinarri eta baliorik gabekoa da; ez du zientziako seriotasunik.

Honelako bereizketa edo sailkapenetan bada egiazko zerbait ere, baina baita errakuntza eta manipulaziorik ere eta eztabaida-iturri izan ohi dira beti. Nik neuk ere asma dezaket, aurreko hauen antzera, beste bereizketa bat egiazko zerbait duena baina eztabaidagarria eta zientifikoa ez dena: *Atzeratzaileak*: Espainia zaleak (eleizgizonak ere barne direla) eta erlijioaren arerio diren euskaldunak; *aurreratzaileak*: euskaldunak, gehiengoa eleiz-

gizonek osotzen dutelarik. Hemen badago egiazko zerbait, baina historialarien arrazoi bide zientifikoak baino gehiago, sentimenduak isladatzen dira.

Bi aldetakoei buruz eritzia ematerakoan, ez dago biak zeharo berdin epaitzerik. Aurreratzailerik izatea askoz ere logikoago da, garai ilun baten aurrean gaudenean edo eta dokumentazioz ez denean, berezkoa baita sentimendu, maitasun edo irudimena-
ren arabera jokatzeko. Atzeratzaile izateak, ordea, ezjakina edo asmo txarrekoa izatea esan nahi du; IX-XII. mendeak aski eza-
gunak direlako eta hain argibide eta dokumentazio ugari izanik,
ez dago ezikusi egiterik, errealitatea dokumentuen argitan mus-
turren aurrean baitugu.

-Zuzenago, argiago eta zientifikoago litzateke beste bereiz-
keta hau egitea: alde batetik gaia sakonki aztertu dutenak; eta
bestetik, gaia ganoraz aztertu ez dutelarik, jakin ez, eta itsu-
itsuan baieztapenak egiten eta beren inguruan funtsik gabeko
eritziak eraikitzen dihardutenak.

d. Egiteko moduari dagokionez, aipamen desegokia deri-
tzat M. Rouche-ri buruz egindakoa: «Akitaniako historiarako
hain kualifikatua den M. Rouche historialaria, oraindik oraindi-
ko lan batetan, baskoien paganismoa XI. mendean bertan jar-
tzeraino heltzen da» (40. orr.).

Lehenengo ta bat harritzekoa da frantziar hau aipatzea gai
honetan eta ez, adibidez, Renée Mussot-Goulard...

Euskaldunen kristautzeari dagokion gaian M. Rouche «hain
kualifikatua» dela esateari desegoki deritzat, honen eritzia
-oinarri gabekoa eta okerra den eritzia- indartzen baita hori esa-
nez. Hobeki izango zen Rouche-ren argudioak, baldin baditu
behintzat, adieraztea; baina Rouche aieru edo uste oker bateta-
tik abiatzen da bere eritzia moldatzerakoan. Egia da bai Rouche
Akitaniako historialari moderno onen artekoa dugula; baina kris-
tautasunaren sarrera delako gai honetan haren eritzia baliorik
gabekoa da.

Honela, adibidez, *L'Aquitaine des Wisigoths aux Arabes*,

418-781 *Naissance d'une région*. (Paris 1979), bere liburu handian, 505. orrialdean, X. mendean (977.ean) «Episcopus Wasconiae» idazpuruak Gombaud gotzain misiolaria zela frogatzen duela dio eta euskaldunak urte haietan ari zirela bataiatzen, kristau egiten. Argudio hau ustela dela ikusteko ez dago argia izan beharrik. Argudio hori onartuz gero, garai horretan, X eta XI. mendeetan Gaztelerrria ez zela kristaua baieztatu beharko genuke eta Aragoa ere ez, orduantxe ari zirela bataiatzen eta kristau egiten, garai horretan agertzen baitira «Episcopus Castellae» eta «Episcopus Aragoniae» idazpuruak ere. Baina arrazonaketa hau guztiz ustela da. «Episcopus (Wasconiae, Castellae, Argoniae)» idazpuru hauen zergatia beste zer batetan bilatu beharko da, esate baterako, garai horretan ematen den feudalismoaren indartzean, eliz erakundeen birrantolaketan etab. etab.

II. Kristautasunaren sarrera dela eta: historialariak

Kristautasunaren sarrera Euskal Herrian gaiak, historialari ezberdinen artean, euskal errealitatea ez jakiteagatik, errepikatu izan diren zenbait klitxe haustea eta nagusitu zaigun autorekeriatik askatzea oso onuragarritzat dut gaur egun.

Zilegi bekit, labur-labur bada ere, eragin handiko historialari eta joera ezberdinei buruz zenbait eritzi ematea. Urteak eta urteak daramatzadala gai hau ikertzen adierazi behar dut, eta georogoko argitarapenetan auzi hau zeharo argiturik usteko asmoa dudala.

1. Autorekeria

Aurreratzailerik atzeratzaile bereizketa funts gabeko honck, ez du histori argudioetan bere iturria, sentimenduetan edo eta gaizki ulertutako zehetasunetan baizik. Eta tamalgarria ere bada historialari ospetsuak uste oker hauek bultzatzearen errudun izatea. Gero, haiek esaten dutena, egia den ala ez aztertu gabe, itsusuan (norbere ideologiaren arabera) jarraitu ohi da.

Adibide bat ematearren, aurreraxeago ere esana dugunez, Z. García Villada historialari handia dugu atzeratzailearen aita

(1935-1936); baina honen eritziak ez du ezertxo ere balio. Eta beste horrenbeste esan beharko genuke Z. García Villada-ren eritziak errepikatzen dituzten historilarietarako ere. Balio gabekoa dena, errepikatu eta errepikatu eginik ere, beti baliogabe; errepikatu arren ez da balioko sekula bihurtuko.

Aipatzen den beste historilari handietariko bat J. M. Lakarra dugu. 1956.eko «*La cristianización del País Vasco*» izeneko honen artikulua (hitzaldiak) ez du, nire eritziz, eman nahi izan zion autoritate edo sinesgarritasunik. Artikuluan, behar den froga eta dokumentaziorik gabeko eritziak, kasu batzutan, intuizio hutsak, ematen dira.

Dibulgazio aldetik hitzaldi interesgarri eta ona dela esan behar; baina Lacarra berarengan barik, honen artikuluarik gehiegizko balioa eman diotenengan dago okerra, hark ez baitzuen horrelako asko handirik izan idazterakoan.

Jakintsu handia izan arren, histori gaitan eta bereziki Euskal Herriaren kristautzearen gain gehiegi goraiapatua den beste bat Julio Caro Baroja dugu. Honen lanen artean «*San Amado y los Vascones*» aipatuko nuke. Lan honetan agertzen duenez, ez dirudi auzi honetan gaur eguneko ikerkuntzaren nondik norakoaren berri ongi dakienik; beraz, askok beraien aipamenetan ematen dioten baliorik ez duela esango nuke.

Cl. Sánchez Albornoz eta beste batzuren izenak aipatzen ezin naiteke gehiago luza.

Gai honen historiografian *nork esaten duen* begiratzen da bereziki, zer esaten duen edo eta dakartzen argudioci jaramon handirik egin gabe. Baina hain zuzen ere, bestetara egin beharko litzatekeen.

2. «Aurreratzaileak-Atzeratzaileak» bereizketari oharra

Orain arte esana dut ez zaidala gogoko honelako bereizketarik historiografia serio batetan.

Adierazi dut baita aurreratzaile izatea, Espainia, Frantzia eta

Europako elizbarrutirik gehienetan gertatu izan denez, normalago edo berezkoago dela (baina ez zientifikoa). Argirik edo dokumentaziorik ez dencan, sentimenduak kristautasunaren sorrera aurreratzeko jocrdu, denboran, Kristogandik hurbilago eginez. Baina behin eta berriro diot hau: hori ez da euskaldun joera soilik, alde eta nazio guztietakoa baizik... Beraz, historiografia batetan ez dago zertan garrantzi handirik eman horri.

Onartezina dena atzeratzaileen eritzia da; hau da, XI. eta XII. mendeetara arte atzeratzea. Hauek ezjakinak edo asmo txarreko jendea direla esan behar aho batean, garai hori aski ezaguna baitzigu, dokumentuen argitan ezaguna. Horregatik ostrukak bezala ezakusi egiterik ez dago.

Orain ez da une egokia, ez eta tokia ere hori frogatzen has-teko. Dokumentuetan egiaztaturiko gauza edo zertzelada bat aipatu nahi nukc soil-soilik: apezpikuon mende zeuden hainbat eliza, parrokia eta ermitaz gainera, XI. mendean, orain Euskal Herria den lurralde honetan, 270 monastegi baino gehiago ziren (batzu besteak baino handiagoak edo garrantzitsuagoak: elizak, ermitak etab.); hauei, euskal lurraldearen ingurukoak (aintzina euskal lurralde izan zitezkeenak), elkarrekiko eragina zuten to-kietakoak, adibidez: Jaka, Errioxa eta Araba ondoko Burgoskoak gehituz gero, 570 monastegi edo ta eliza lirateke guztitara! XI. mendean hau honela bada, zer esan daiteke? Beste gauzatxo bat ere azpimarratu beharra legoke: hain zuzen ere Penintsula osoko lehen monastegia, dokumentuek egiaztatua, euskal lurraldearen inguruko Pirineo aldean dago: Asan edo Asian-goa (551).

Atzeratzaileek, curen eritziari eustarren, eritzi hori lekuz murriztu beharra izan dute, eritzi atzeratzaile hori Euskal Herriko toki txiki batzutara mugatuz: Gipuzkoa eta Bizkaira, herrialde hauetako dokumentazioa urriagoa baita. Baina kontutan izaten ote dute bi herrialde hauetako biztanlegoa ere, eliza, monastegi eta dokumentazioa bezalaxe, Nafarroa eta Arabakoa baino askoz ere murriztagoa zela garai hartan?

Egia da bai Euskal Herriko alde guztietan ez dela bateratsu

eman izan kristautasunaren sarrera, ez eta neurri berean ere, bai-
na hori ez da Euskal Herriko zera bakarrik; beste herrialde eta
nazioetan ere gauza bera gertatu izan da.

Julen Urkiza